

# Deseraiki, eraiki ahal izateko

«Maren», «Libe» eta «Oier» sortu ondotik idatzi du Alaine Agirrek «Ane» (Erein), collage baten gisan bere bidetik gustuko ez duena kendu eta pieza berriak jartzen saiatuko den gaztea. Gurasoek markatutako bideari uko eginda, errebisio introspektibo bat egingo du Bilbon.

Oihane LARRETXEIA | DONOSTIA

Hemezortzi urte bete eta institutuari agur esaten zaion uea iristen denerako zenbait erabaki hartu behar izaten dira maila akademikoan. Anek ez daki zer nahi duen, baina badaki, ordea, zer ez duen nahi: bere gurasoek derrigor harrarazi dioten bidea, Ekonomia ikasketena, hartu. Hasi hasiko da, baina berehala iskin egingo dio patu horri. Etxea utziko du, bere herria, bere lagunak. Gurasoak ere bai, jakina, eta trena hartuko du Bilbon bizimodu berri bati hasiera emateko. Eta tren hori hartzea, nolabait, bere barne bidaiari hasiera ematea izango da.

Alaine Agirre (Bermeo, 1990) idazleak "Maren" izenburuarekin abiatu zuen txandakako bildumari segida eman dio laugarren izenburu honekin. Aurretik beste bi plazaratu zituen, "Libe" eta "Oier". Aurreko lan horietan irakurleak jaso zituen Aneren zertzelada batzuk eta oraingoan bera da protagonista nagusia.

Egileak sortu dituen pertsonaia guztiek ezaugarri nagusi bat partekatzen dute: denak gaztetasuna atzean utzi eta heldutasunerako bidean dira. Horrek inplikatzeko duen guztiarekin, gazi-gozoak, argi-ilunak. «Denek egiten dizkiote galderak beren buruari, eta nor bere bidea egiten ari da», azaldu zuen atzo, Donostian.

Bilbon sustraiak bota eta hutsetik hasiko da Ane, unibertsitateko matrikularen dirua berreskuratu ondoren. Pisu bat partekatuko du Mikel eta Aitziberrekin, lagun berriak egingo ditu eta harategi batean lanean hasiko da. Han ikasiko ditu unibertsitatekanpo ikasten direnak, nagusi gogor baten aginduetara aritzen, prekaritatean lan egiten. «Bere bideari ekingo dio hiriburuan, ez du zeini heldu, eta ondorio guztiekin emango du pausoa».

## Collage baten moduan

Ale bakoitza independentea da, eta irakurle berriak azken honetatik has daitezke berau ulertzeko beharrezkoa den informaziorik galdu gabe; aldiz, irakurle zaharrek ikusiko dituzte tarteka aurreko protagonistak, haiek



Alaine Agirre idazleak txandakako bildumari jarraipena eman dio «Ane» lan berriarekin. Juan Carlos RUIZ | FOKU

ezagutu ahal izango dituzte, bakoitzak zein garapen izan duen eta haien arteko harremanak nola ehundu diren denboraren joan-etorrian. «Ane»-k, oraingon, bi pertsonaia inportante aurkeztuko dizkigu, aipatu pisukideak. Batetik, Mikel. «Anek eta Mikelek hasieratik konexio handia izango dute, eta heldua goa denez Anek behar duen barretasuna emango dio. Transexuala da», aurreratu zuen.

Horren inguruan egileak azaldu zuen ez zuela transexualitatea gai nagusi gisa agertu nahi, zeharka planteatzen den errealitate bat bezala baizik. «Bazterreko gaiak hari nagusiari txertatzen zaizkio, zeren bestela badirudi gai zehatz batzuk bera-

riaz propio sortutako lanetan baino ez direla agertzen. Eta nire iritzia da badirela kontu batzuk edonon agertu behar dutenak, batzuetan detaile bezala badira ere», defendatu zuen.

Aitziber da beste pertsonaia garrantzitsua Aneren bizitza berrian. Aplikatua eta saiatua, Medikuntza ikasten ari da. Nola-bait, Aneren kontrapilua izango da, baina berak ere baditu bere argi-ilunak.

Agirre ez du uste liburuak gai nagusi bati buruz diharduenik, ez bada bilakaera pertsonalaz, bidea beraz eta tartean bizitakoaz. Eta, alde horretatik, nobela bera collage baten moduan deskribatzen du, Aneren bizimodua bezalaxe. «Errebisio

bat egiten du, eta ordura arte onartzen dituen zenbait gauza baztertu egiten ditu, ez diote balio dagoeneko. Beste batzuk hartuko ditu inguru berrietatik, lagun berrietatik, hausnarketa propioetatik. Bere burua eraikitzen eta deseraikitzen dabil. Trantsizio horri kamera bat jarri diot, eta guk dena ikusiko dugu», amaitu zuen.

«Otra vuelta de tuerca»: nueva versión de la mejor historia de fantasmas

naiz.

## Musikaren joatekoak



### Ritxi AIZPURU

Musika argitaratzailea

Hamaika urte arteko umeek ez dute diskorik zuzenean erosiko, baina musika kontsumitzen, erabiltzen eta disfrutatzen hasten dira. "Golazen" telesail musikalaren 7. edizioa ematen ari dira ETBn, eta ikusleen profila 5 urtetik 13rakoa da. Ez dut esango kultura musikalaren oinarri esanguratsuenak urte tarte horretan jasotzen direnik, baina bai kultur transmisioarentzat urte garrantzitsuak direla. Ez dut hausnarketarik egingo telesailaren barrunbeetan, alde musikala baino ez dut aztertuko.

"Golazen"-enetik Euskal Herriko rock musikaren abesti entzutetsuak pasatu dira, pil-pilean egon diren abestiak irrati formulak, kalean, tabernetan. Bertsioak egiten dituzte aktore-kantariak. Ume profil horri eskura jartzen dizkio kantuak eta, askotan, ikusleak ez ditu jatorrizko taldeen izenak ezagutzen. Abesti horien egileak gorritu ere egin daitezke jatorrizko abestiak nolako itxuraldaketa izan duen ikusita. Dena den, umeek jatorrizko kantu horien hasierako bertsioak aurkitu ondoren, horiek balioan jartzen dira, eta katalizatzaile bilakatu. Beharbada ez da izango gazteenak musikara erakartzeko biderik kulturen, baina bidea egiten du. Gero, benetako zuzenekoetara etorriko dira musikari horien pozerako. Idatzi dudana hau ez da inola ere "Go!azen" telesailaren promo orria. Musikari eszeptiko batzuek ikusi dute ume horiek nola egin duten ilara taldearen diskoa erosteko "azokan". Aurten, ez.